

419.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-APIRILA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BAT
+ GUKA ALDIZKARIA

MAITE ETA GEMA LOPEZ LAS HERAS

LETRETAN ZAILDUAK



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bontate diabolus

www.urrategiinteriorismo.com
Arrogasta 27 20600 Eibar
Arretxe 9 20730 Azpeitia

...erantzuna gara ...ALBERDI gara



943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

IBAIONDO BERRI

Sustapenaren obrak hastera doaz.



Zatoz eta aukera ezazu zure gustuko etxebizitza.



Eta ez ahaztu, beharrezko duzun aholkularitza fiskal profesionala doan emango dizugula.



MAXIXATZEN 419

2022-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | |
|--|---|
| <p>5 Iritzia Ane Olaizola
<i>Ikusi eta ikasi.</i></p> <p>6 Hitz bitan Itziar eta Amaia
Larrañaga, Amaitz dendako
saltzaileak.</p> <p>8 Izpiak eta hizkiak Ainhoa
Beristain, <i>Zea Mays</i>-<i>"Zuloan"</i>.</p> <p>10 Iritziak Juan Ramon Alberdi
<i>Urrutikoa gertu</i>, Rina Cabeza
<i>Hipersexualizazioaz</i>.</p> <p>12 Elkarrizketa Maite eta Gema
Lopez Las Heras, itzultzaileak.</p> <p>18 Iritzia Kari Alberdi, <i>Beltxarga beltza</i>.</p> <p>20 Elkarrizketa Manex Ansoategi,
saskibaloi jokalaria.</p> | <p>24 Zakelmari</p> <p>25 Iritzi grafikoa Intza Arakistain</p> <p>26 Erretratua Luis Sudupe 'Egurrola',
prozesioko partaidea.</p> <p>30 Plazan bazan</p> <p>32 Atzera begira <i>Hezkuntzen</i>
<i>bueltako kontuak</i>.</p> <p>36 Erreporatjea Juan Luis Plazaola,
fraidea.</p> <p>40 Klik! Korrika.</p> <p>44 Iritzia Sara Rodriguez,
<i>Ni, eta ondoren? Ni</i>.</p> <p>46 Euskara Aitor Arruti,
<i>Gurpila zorutzen</i>.</p> <p>Bertsoa paperean</p> |
|--|---|

MAXIXATZEN



Argitaratzailea
Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua
Ane Olaizola
Erredaktore taldea
Anartz Izaguirre
Andoni Elduaen
Ane Olaizola
Nerea Uranga
Diseinu arduraduna

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak
Amaitz Rubio Aprea
Ainhoa Beristain
Juan Ramon Alberdi

Rina Cabeza
Kari Alberdi
Mireia Olariaga
Gorka Larrañaga
Kepa Alberdi
Aitor Arruti
Onditz Alberdi

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 850 ale



PUBLIZITATEA

Naïke
TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA 5 AZPETA
943 17 89 51



EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA
Urbaitze 9 bis 943-15 00 20 AZPETA

Web proiektuak
Software ingeniaritza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

PB
SPORT

Inbentario 7 • 943-02 56 89
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 88
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.fta-kun.com • azkolia_ftakun@hotmail.com



Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA
TABERNA



Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31



JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA

zurt

OGITARTENAK
SANDWICHAK ETA HANBUKESAK
ENTZALADAK
PAZOKAK
GANDAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 88 • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ARTISAU PUZAK
ENTZALADAK
PASTORAK
PLATOS KONZERTUAK
HABIAK
OGITARTENAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOPU ETA KANPEAK
PARELAK

LATZ NAGUSIA 55 • 943-85 13 19



ALDAKO

SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPONENTAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 35 14 • 629 09 92 76
aldako.informatica@gmail.com



Obrak hastera doaz
IBAIONDO BERRI

ARANBARRI
www.aranbarri.com

Ikusi eta ikasi



ANE OLAIZOLA

Hamaika ikusteko jaioak omen gara, baina horiek baino zenbait gehiago bizi behar izan ditugu azken hilabete luzeetan.

Gurpilean biraka genbiltzan, batzuetan gora, besteetan behera, harik eta norbaitek iltze bat jarri eta zulatu zen arte; egun batetik bestera, krak egin eta geratu egin zen aurrera eramaten ginduen gorpila, isildu zen mundua eta gotortu ginen etxean, kanpoan zegoen zera horrek minduko gintuen beldurrez. Ordutik, inoiz biziko genituela imajinatu gabekoak ikustea zein ikastea suertatu izan zaigu.

Ikusi dugu gaitza ate joka, eta ikasi dugu etxeko lau hormen artean bizitzen. Ikusi dugu ondokoa gaixo, eta ikasi dugu bakartuta egoten. Ikusi ditugu gertukoak hiltzen, eta senideek haiek ikusi gabe ikasi dute agurtzen. Ikusi ditugu agonian zeudenak maite dituztenen laztanik jaso gabe azken hatsa ematen. Ikusi ditugu adineko egoitzak kasik espetxe bilakatzen, eta behin eta berriz ikasi dute haiek, gaur hil daitezkeela jakitun, egunerokoari aurre egiten. Osasunaren izenean, ikusi dugu gizatasuna bera galtzen.

Ikusi ditugu umeak besteok baino zurrunago egoerari aurre egiten, eta haiek ikasi dute besteenganako distantziarekin bizitzen; irakatsi diegu ondokoarekin justuko kontaktua edukitzea normaltzat hartzen. Ikusi ditugu haien abestiak isiltzen, baina, aldi berean, jarraitu dugu zeruetan den gure aitari gaitzetik atera gaitzala lau ahotsetara erregutzen.

Ikusi ditugu ospitaleetan ZIUak gaixoz betetzen, baita gazteekin psikiatria zerbitzuak bikoizten ere; ikusi ditugu haien begietako distirak apaltzen, eta haiek ere ikasi behar dute bizipozaren eta erruaren arteko orekan dantza egiten.

Pandemia amaituta, gizarteak zerbait ikasiko omen zuen; herritarrak hobeak bilakatuko omen ginen. Baina ikusi ditugu hainbat balkoitatik zelatan, eta ikasi dugu, norberaren morala ezarriz, sasipolizia izaten. Ikusi dugu gizartea zatitzen, eta amaitu dugu ondokoarekin eztabaidatzen eta hurkoarekin haserretzen. Ikusi dugu nerabeei zein helduei jatetxeetarako, tabernetarako, kiroldegirako edota liburutegirako sarrera ukatzen, eta ikasi dugu ezikusiarena egiten. Bide batez, eta zergatik ez, ikusi ditugu milaka beso ziztatzen eta ikasi dugu sudurzulotik makilatxo bat sartzen; era berean, ikasi dugu alfabeto greko erdia behintzat goitik behera esaten.

Lehengo gorpila berriz biratzen hasi dela dirudien honetan, bakoitzak jarrai dezala atzera begiratu eta nahi duen eran barrenak husten. Nik argi dut: begien aurrean genuen zoriontasuna, eta ez genekien. ■■■

**IKUSI DITUGU
GERTUKOAK HILTZEN,
ETA SENIDEEK HAIK
IKUSI GABE IKASI DUTE
AGURTZEN**

"Plataforma handiekin, asko aldatu dira bezeroen joerak"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANARTZ IZAGIRRE

Amaitz liburu dendako eta kioskoko kudeatzailerak dira Amaia Larrañaga (Azkoitia, 1981) eta Itziar Larrañaga (Azkoitia, 1983). Internetek eta plataforma handiek asko aldatu dute saltoki txikien egunerokoa, eta egun, herrian gelditzen den halako denda bakarrenetarikoa da.

Noiz ireki zenuten denda eta zein da bere historia?

ITZIAR LARRAÑAGA: Gurasoek 1994an iriki zuten Amaitz liburu denda; beraz, 28 urte beteko ditu aurten. Amaitz izena gu bion izenetatik dator.

AMAIA LARRAÑAGA: Geuk erabaki genuen dendaren izena. Gurasoek negozio bat zabaldu nahi zuten herrian, eta hasieran egunkari gutxi batzuk saltzen hasi ziren, ez baitzekiten negozioa ondo joango zen ala ez.

Noiz hasi zineten zuek biok lanean?

I.L.: Hementxe ibili izan gara beti; modu naturalean hasi ginen dendako zereginetan.

A.L.: Gure etxeko parte izan da Amaitz, eta beharra egon denetan beti joan izan gara dendara laguntzera. Azken bizpahiru urtetatik, geu ari gara kudeaketa lanak egiten.

Besteak beste, egunkariak eta liburuak saltzen dituzue. Hasi zinetenetik, asko aldatu al da lanbidea?

I.L.: Bai. Bizimodua ere asko aldatu da 28 urte hauetan, eta erosteko erak ere bai. Plataforma handien etorrerarekin, asko aldatu dira bezeroen joerak.

A.L.: Denda ireki zen garaian jendeak ez zuen Interneten erosten, eta orain askoz normalagoa da erosketak modu horretan egitea.

Jende askok euskarri digitalean kontsumitzen ditu orain prentsa nahiz literatura. Antzeman al duzue joera hori azken hamarkadan?

I.L.: Bai. Lehen ez zegoen irakurtzeko horrenbeste aukera, eta egunkaria zen informatzeko modurik sendoenetako bat. Orain informatzeko milaka aukera daude.

A.L.: Orain, askotan, titularra bakarrik topatzen dute irakurleek.

Kazetaritzan, beraz, jende askok berehalakotasuna bilatzen duela esango zenukete?

A.L.: Bai, baina jendeak badu artikuluak eta erreportajeak sakonago irakurtzeko joera ere, eta horretarako aukera ematen dute egunkariak.

Zein izan ohi da normalean egunkaria erosten duen bezeroaren profila?

I.L.: Asteazkenean, jende zaharragoa etorri ohi da. Denboragatik edo egunerokotasunagatik, agian, asteazkenean gazteek ez dute egunkaria horrenbeste erosten; asteburuetan bai, ordea.

A.L.: Gazteak egunerokoan beste era batera informatzen direla esango nuke, eta asteburuetan, lasaiago daudenean, gehiagok erosten dute egunkaria.

Gazteek ba al dute liburuak irakurtzeko zaletasunik?

I.L.: Ikusten dugu gurasoek gustuko liburuak aukeratzen uzten dietela haurrei. Iruditzen zait gurasoak garrantzia ematen ari direla haurren irakurzaletasunari.

A.L.: Haurrek erakusleihakoa liburu bat nahi baldin badute, gurasoek, normalean, beste edozein produktu baino lehenago erosten diete liburu bat.

Zein da zuen ofizioaren alderik okerrrena?

I.L.: Denda bat izanik, oso lanbide lotua da. Gainera, guk prentsa ere saltzen dugunez, asteburuetan lan egin behar izaten dugu.

Eta onena?

A.L.: Jendearekin harremana izan dezakegula; izan ere, polita da bezeroekin sortzen den hartumana. Dendara egunero etortzen den jende asko dago, eta harreman onak egiteko balio digu lanbide honek.

Nolakoa da liburu dendei eta kioskoei ikusten diezuen etorkizuna?

I.L.: Pentsatu nahi dugu beste apur batean behintzat segituko dutela bizirik. Plataforma handiek-eta beldurra ematen dute, eta askotan pentsatzen duzu saltoki txiki guztiak jango dituztela, baina pandemiarekin ikusi da denda txikiak ere indarra dutela.

A.L.: Dendan, zerbait erosten duzun bitartean hitz egiteko aukera izaten duzu; harremanak sortzeko guneak dira saltokiak. Pandemiak gune horien beharra erakutsi du. ■■■





Zea Mays-'Zuloan'

ARGAZKIA: AINHOA BERISTAIN

"Eta zenbatuko ditut berriz ere nire minak,
mintasunak, bihozmin eta oinazeak,
ordena sekretu baten antolatuz eta birgogoratuz.
Egunak ematen badit
nire hilobian goatzeko denbora.
Denborak ematen badit
(...)

Zuloan
 geldituko naiz
nahigabeak
gozatu nahian". ■■■







Urrutikoa gertu

Ez nago ziur, baina uste dut Pako Aristi idazle azpeitiarrari irakurri niola gertakariak zenbat eta gehiago gerturatu, are eta sona zein garrantzi handiagoa izaten zutela: probintzia berean izatea, eskualdean, herrian, kale berean, etxepean, etxean... Gertakaria gerturatzen zihoan heinean, edo gertukoei eragiten zien neurrian, are eta dimentsio handiagoa izaten zuen horrek. Espero dut, irakurle agurgarri hori, hizki hauek zugana iristerako mintzagai hartu dudana gertakaria, bere horretan, bukatuta egongo dela, nahiz eta bere ondorioek luzaroan jazarriko gaituzten. Izan ere, Errusiak Ukrainako herrialdeari eginiko erasoaz idaztea erabaki dut. Eta deliberazio horretan

distantziak garrantzi handia du.

Munduan zehar hainbat guda ezagutu ditugu. Batzuk, Balkanetakoak kasu, Europan eta urte luzez gertatu ziren. Beste batzuk Afrikan, Ekialde Ertainean, Sirian, Afganistanen... Tamalez ez nituen denak aipatuko, ezen betidanik, herritarren odola moneta merkeegia izan da mandatarien gutizia asebetetzeko. Alabaina, horietako inork ez digu Ukrainako inbasioak besteko larritasunik sortu. Are gehiago, txantxak ere egin izan dira gerrei buruz. Xabier Letek *Gizon arruntaren koplak*-en esaten zuen: "Afganistanen gerra piztu zuten ia!". Eta irribarretxo batekin entzuten dugu. Ez dut esan nahi gerra horiekiko sentiberatasunik ez dugunik, baina Ukrainaren kasuan

Aristiren distantzia kontuak gaurkotasun nabarmena hartu du: gaurkotasuna eta gertukotasuna.

Gertukotasuna aipatzerakoan, kilometroei dagokien distantziaz harago, bi eratakoea nabarmendu nahi dut: ekonomikoa eta humanoa. Ekonomiari dagokionez, kalte nabarmenak eragingo ei ditu gure poltsikoetan: gasa eta petrolioa etengabeko prezio igoeran, argindarra berdin. Burtsa behera, inflazioa gora. Hori guztia oso gertu pairatuko dugu, distantziarik motzenez: gure soinean.

Alabaina, dramarik handiena humanoa da. Hedabideen bitartez iristen zaizkigun albisteak eta irudiak etsigarriak dira: suntsitutako herriak, errefuxiatu andana, gerra makineria... Eta hondamendi hori guztia gure kontinentean

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



RINA CABEZA

Hipersexualizazioaz

Egunetik egunera, gero eta normalizatuago dago hipersexualizazioa.

Gainera, garapen teknologikoak medio, indarkeria matxistak forma berriak hartzen ditu: horietako batzuk dira sare sozialen bidez jazotzen diren erasoak edota jazarpenak.

Muturreko sexualizazio horrek egungo "gizarte feminista" bere tokia egin du, eta *influencer*-ek, estetika industriak edota pornografiak sexualizazio hori arau kultural bilakatu dute. Garapen teknologikoaren ondorioetako beste adibide bat da OnlyFans plataforma. Horrelako plataformak leku paregabea bilakatu dira hipersexualizazioa, ziberjazarpena edota estortsioa garatzeko.

Argi ikusten da kapitalismoaren logikaren barruan kokatzen den auzia dela hipersexualizazioarena. Kontsumitzen dugun kultura hipersexualizatuak enpresa handien etekin ekonomikoak handitzen ditu, eta horrez gain, emakume langileenganako esplotazioa areagotzen du. Auzi hori gainditzeko, beste hainbeste problematika bezala, egungo gizarte kapitalista gainditu behar da. Horren alde lerratzen diren horietako bat naiz, gizarte kapitalistaren barruan ezinezkoa delako indarkeria matxistarekin amaitzea. ■

izateak gertutasuna eransten dio. Haatik, bada are eta gertuago bilakatzen duen zirkunstantzia bat: drama horren testigantza geure hizkuntzan, euskaraz, iristen zaigula. Chernobylgo Lagunak elkartearen bidez Euskal Herrira urtero etorritako haur aunitzek gure hizkuntza ikasten dute, gure kulturaz blaitzen dira eta etxeko bilakatu. Hots, Ukrainako gerra gure mintzairan eta gure etxeetaraino iritsi da. Eta hori oso gogorra da, are gehiago dagoeneko gizon bilakatuta dagoen haur horietako batek norberaren etxean uda batzuk igaro baditu.

Horrek guztiak hainbat gogoetara bideratu nau. Duela gutxira arte, bazirudien pandemiaren ondorioz mundu osoa elkartuko zela, etsai komun bat genuela eta gizakion onerako

norabidea hartu zela. Duela urtebete COVID-19ari buruzko txertoa sortzeko ahaleginean murgilduta zeuden herrialde guztiak. Putinek ere bazuen berea, zeinarekin mundua salbatuko zuen. Baina agintarien botikek, batez ere, beren prestigioa eta onura ekonomikoak dituzte jomugan. Pandemiaren itzala gerraren iluntasun osoarekin itzali nahi izan du errusiar agintariak, eta gaurkotasunari dagokionez, lortu ere bai hein batean.

Gizateriak betidanik jasan duen pandemiarik bortitzena guda izan da. Beharbada, giza espeziearen eboluzioaren oinarri ere bada. Alta, guda hitzaren "gu" bi eratara ulertu behar da gerraren igarotzean: agintarien "gu" harro bezain despotan, eta biktima zuzenak diren herritarren "gu" tragikoan. ■

GIZONEK GERRA EGIN, HAUR-EMAKUMEK PAIRATU



"Aukera pertsonala izan da biok letretara jotzea"

MAITE ETA GEMA LOPEZ LAS HERAS ITZULTZAILEAK

Maite Lopez Las Heras eta Gema Lopez Las Heras ahizpek, letretan eta itzulpengintzan aritu arren, jardunean beste hariko ezpalak dirudite. Bakoitzak bere bidea jorratu du, bere ibilbidea egin du, eta egiten ari da. Biak letretan zailduak, bakoitza berean.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Filologia Klasikoa ikasi zuen Maite Lopez Las Herasek (Azkoitia, 1985), eta gaur egun latina, grekoa, gaztelania eta frantsesa irakasten ditu Elgoibarren (Gipuzkoa). Bi lan ditu argitaratuta, biak poema liburuak: bata, berak sortua *Pienso, luego escribo* (autoedizioa, 2018); bestea itzulpena, *Safo. Poesia guztia* (2020, Balea Zuria). Bere hirugarren poesia liburuak hasi berri den urtaroan ikusiko du argia, Balea Zuria argitaletxearen eskutik: *Grezia eta Erromako emakume poeten antologia*.

Itzulpengintza eta Interpretazioa unibertsitateko ikasketak egindakoa da Gema Lopez Las Heras (Azkoitia, 1989). Lanbidez itzultzailea da Eusko Jaurlaritzaren HAEEn (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea). Administrazioa itzultzaile lanetan aritzetik literaturarako urratsa egin du orain gutxi. Jardun horretan Literatura Unibertsala bildumarako *The Country Girls, Landa aldeko neskak* (2022, Erein) Edna O'Brienen trilogiako lehen liburua ekarri du euskarara.

Biok letrataraz jo duzue. Nolatan joera hori?

Gema Lopez: Biok hitz egin izan dugu horretaz, eta joera ez datorkigu familiatik; gure gurasoak ez

dira bereziki literaturazaleak. Zentzu horretan, biok letrak aukeratzea kasualitatea izan da, ez gara elkar elikatu. Niri txikitatik gustatu izan zaizkit hizkuntzak, beti moldatu naiz ondo horiekin. Batxilergoan izan nuen zer ikasi ez nekien bolada bat, baina, azkenean, Itzulpengintza eta Interpretazioa ikastea erabaki nuen, eta gaur egun, oso gustura nago egin nuen hautuarekin. Baina biok zergatik jo dugun letretatik? Ez dakit. Berdin-berdin jo genezakeen zientzietatik... Etxetik jaso dugun eragina ez da izan, behintzat.

Maite Lopez: Etxetik baino, hautu pertsonaletik dator guk egindako aukera. Adibidez, Brontë ahizpen aitak idatzi egiten zuen edo Machadoren aitona unibertsitateko irakaslea zen. Irene Vallejo, adibidez, esaten du txikitan amak ipuinak, istorioak, mitoak... irakurtzen zizkiola, eta horrek elikatu zuela bere literaturarekiko zaletasuna. Gure kasuan ez da horrelakorik izan; gurean ez da izan literaturarako joerarik eta liburu asko ere ez dira egon etxean. Akordatzeko naiz Nobel saria jasotakoan liburuak zeuden altzari bat bazela gurean, baina apaingarri gisa zegoela uste dut. Izan ere, gure etxean ez da asko irakurri. Pertsonalki aztertuta, baina, niri betidanik gustatu izan zaizkit hizkuntzak; batik bat literatura.



Beharrik handieneko momentuetan irakurtzera jo dut beti, une pertsonal jakinetan asko lagundu izan didalako horrek.

Biok itzulpen lan bana daukazue kaleratuta; biak generoz, garaiz... desberdinak.

G.L.: Maitek itzulitako lana poesia da, orain dela 2.000 urtekoa. Nik itzulitakoa, berriz, eleberria, orain dela 60 urte-edo idatzitakoa, eta, Saforenakin alderatuta, garaikidea dela esan daitekeena. Saforen poemak altxor bat dira, garai batetik kontserbatu direlako. Mantendu den hori ekarri du euskarara Maitek. Nire lanaren kasuan, O'Brien bizirik dago oraindik, eta idazten jarraitzen du.

M.L.: Guk egindako bi lanek ez dute zerikusirik. Igoal, komunean izan dezaketena da bi idazleak emakumeak direla eta biek historian zehar halako ezabatze edo deusezte bat bizi izan dutela.

G.L.: Bai, O'Brienen liburua zentsuratu egin zuten argitaratu eta berehala. Nik itzuli dudana trilogiako lehen liburua da, eta hori zentsuratu egin zuten, baina baita bigarrena eta hirugarrena ere. O'Brienen herriko apezak su eman zion liburuari, eta Irlandako beste leku batzuetan ere erre egin zituzten hainbat ale. Safo idazlea ere zentsuratua izan zen.

M.L.: Saforen obra erretzea erabaki zuen aita santu batek, eta horrez gain, haren garaitik urte asko pasatu direnez, ia 2.700 urte, haren obra asko galdu egin da. Gai aldetik, berriz, maitasun homoerotikoa lantzen du Safok, eta historiako zenbait garaitan ez da ondo ikusia izan hori. Saforen obra beti joan da txikitzen eta txikitzen: bederatzi liburuko bildumatik 200 bat pasarte besterik ez dira mantendu, eta horiek papiroetatik erabat zatikatuta jaso dira, hala nola Egiptoko hondarretatik, zabortoki batetik, momien kartonajeetatik... Beraz, Saforen obratik gugana iritsi dena oso gutxi da, baina oso inportantea.

Zer hizkuntzatatik ekarri dituzue lanak euskarara?

G.L.: Nik ingelesetik.

M.L.: Nik, berriz, grekotik, lesbiar dialektotik.

Itzultzaile aritzeko gutxienez bi hizkuntza jakin behar dira, eta hizkuntzak ikasteko zaletasuna aipatu duzue. Zenbat dakizkizue?

G.L.: Ama hizkuntza euskara eta gaztelania ditugu, aita erdalduna dugulako. Unibertsitatean, berriz, frantsesa, ingelesa eta alemana ikasi nituen. Montrealen (Kanada) urtebete pasatu nuen frantsesa ikasten, eta Alemanian beste urtebete alemana ikasten. Garai hartatik, baina, hamar urte-edo pasatu dira, eta hizkuntza horiek

ia erabili ere ez ditut egin eta asko galdu ditut.

Izan ere, hizkuntzak erabiltzen ez badira, ahaztu egiten dira.

M.L.: Euskara eta gaztelania izan ditugu etxeko hizkuntzak, eta unibertsitatean latina eta grekoa ikasi nituen; beno, horiek itzultzen gehienbat. Frantsesa neure kasa ikasi dut, eta ingelesa eskolan. Ondo-ondo ez dakit bat bera ere ba ote dakidan. Zer da hizkuntza bat jakitea? Adibidez, badakit latina eta grekoa itzultzen, baina hitz egiten ez. Beraz, jakite hori nola neurtzen da? Nik itzuli dudan grekoaren dialektoa egun ez da hitz egiten, bizirik ez dagoen hizkuntza batetik itzuli dut Saforen lana. Latina ere egun ez da hitz egiten. Horregatik diot, hizkuntza horiek ez dakizkidala hitz egiten; itzultzen bai, ordea.

Bi idazle emakumeren lanak ekarri dituzue euskarara. Zer esan nahi du idazle emakumeen lanak euskarara ekartzeak?

G.L.: Nik ez dut jakiten galdera horri zer erantzun. Egia da historian zehar emakume idazleak-eta nahiko ikusezinak izan direla, baina ez dakit zenbateraino hartu behar den kontuan emakume baten lana itzuli dugula. Izan ere, gizona baten lana itzultzen denean, edota irakurtzen ari garenean, ez gara ari pentsatzen gizon baten lana denik. Emakume baten lana itzultzen edota irakurtzen denean, aldiz, badirudi atentzio asko jartzen dela horretan; igoal, gehiegi eta dena. Alegia, nobelari berari edota nobela horrek eduki dezakeen eraginari baino garrantzi gehiago ematen zaio emakume batek idatzi izanari. Egin dudan lanaren kasuan, Edna O'Brien Literatura Unibertsaleko idazlea dela eta edozeinek irakurtzeko modukoa dela azpimarratuko nuke. Bestalde, O'Brienen lana euskarara ekartzea ohore handia izan da niretzat, eta gainera, euskarara ekarri den haren lehen liburua da. O'Brienek 30-50 lan izango ditu kaleratuta, liburu asko idatzi ditu, eta *Landa aldeko neskak* da euskaratu den aurrena. Horregatik, pribilegioa, ohorea eta erronka handia izan da niretzat.

M.L.: Bizenta Mogel izan dut beti erreferentzia: hark Esoporen fabulak itzuli zituen latinetik euskarara, eta hura izan zen euskarara testu bat itzuli zuen lehen emakume idazlea. Gainera, Azkoitian jaiotakoa zen. Beti izan dut neure artean halako har bat: zergatik ez da idazle emakumeen lana gehiago itzultzen eta euskarara ekartzen? Esaterako, unibertsitatean itzultzen genituen testu denak gizonak idatzitakoak ziren. Horrek esan nahi duena da guk garai hartatik



Maite Lopez Las Heras. ARNAITZ RUBIO APREA

"ITZULPENGINTZA ETA SORKUNTZA EZ DITUT BEREIZTEN, BARRENETIK IRTETEN ZAIZKIDAN BI GAUZA DIRA"



Gema Lopez Las Heras. ARNAITZ RUBIO APREA

"EDNA O'BRIENEN LANA EUSKARARA EKARTZEA PRIBILEGIOA, OHOREA ETA ERRONKA HANDIA IZAN DA"

ezagutzen duguna gizonen ikuspegitik iritsi zaigula. Mundu klasikoari buruz zer dakigu guk? Gizonek esan digutena. Ondorioz, hutsune hori betetzeko, garai hartako emakumeen ikuspuntua azaleratzen erronka eta zeregin handia dago. Esan nahi izan digute emakumeek maitasunari edota gauza arinei buruz idatzi izan zutela, eta horrek ez du zertan hala izan; adibidez, Saforen garaikidea zen Alceo, eta jaso dugun haren lana maitasunari buruzkoa izan da. Lesbianismoaz, emakumeaz, maitasunaz, erosaz, pasioaz... idatzitako testuak hor daude. Safok, baina, Alceok eta garaiko beste hainbat poeta gizonen bezala, herbesteari buruz ere idatzi zuen. Bestalde, unibertsitateko ikasketetan hainbat emakume izen agertzen ziren, baina beti tragediatoko protagonista gisa aipatuta: Antigona, Medea, Casandra... Sortzaile gisa ez genituen ikasten. Beraz, badago zer egina, eta batik bat euskaraz. Hizkuntza gehienetara daude itzulita emakume haien lanak, eta euskarara, aldiz, oso gutxi dago ekarrita. Lan hori egitea interesgarria da, haien eta gure artean zer-nolako distantzia dagoen ikusteko.

Askotan, itzulitako lanaren jatorrizko lekuak ezagutzeko gogoia izan ohi du itzultzaileak. Zuen kasuan, hala al da?

G.L.: Liburua itzultzeko Literatura Unibertsaleko beka 2020ko ekainean jaso nuen, eta irailean hasi nintzen lanean. Garai hartan, izurriagatik ezin genuen Azkoititik irten. Baina badaukat nobelan azaltzen diren lekuak bisitatzeko eta Edna O'Brienek deskribatzen duen Irlanda hori bertatik bertara ezagutzeko gogoia. Liburuan ingurunearen eta paisaiaren deskribapen asko egiten ditu, eta imajinatu ditzakezu, baina han egonda "hau da berak liburuan azaltzen zuen hori", esan dezakezu. Ez dut ezagutzen Irlanda, eta ea hemendik pixka batera hara joateko moduan naizen.

M.L.: Nire kasua bestelakoa da, hizkuntza aldetik-eta alferrik baita liburuaren idazlearen sorterrira joatea, latinagatik Vatikanora joaten ez banaiz behintzat... Baina gustuko dut bidaiatzea, eta batez ere historiari lotuta egitea, Homerok azaltzen dituen Troyako aztarnak ikusteko eta. Lesbosera [Grezia] ere gustura joango nintzateke, Safo non inspiratu zen edo hark zer arnasten zuen jakiteko... Egia esan, literaturak eman didana tokian-tokian bizitzea gustatuko litzaidake. **Maitek Bizenta Mogel aipatu du. Biok irabazi izan duzue behin edo behin izen horrekin egiten den Azkoitiko ipuin lehiaketa.**



Maite eta Gema Lopez Las Heras Azkoitiko liburutegian. A.R.A

G.L.: Txikitako kontuak dira horiek. Eskolan ipuin bat idazteko eta lehiaketara aurkezteko esaten ziguten, eta urte batean, Bizenta Mogel Ipuin Lehiaketako lehen saria irabazi nuen.

Gainontzean, neure kasa ez dut ezer idazten. Oraindik, behintzat, ez dut sortzera jo, beste era batera askatzen ditut frustrazioak [barreak].

M.L.: Bai, nik ere aspaldi irabazi nuen sari bat, baina azkenaldian ez dut ezer irabazi; ni frustratuta nago, bai [barreak]. Dena den, nik sortzen eta idazten jarraitzen dut. Itzulpengintza eta sorkuntza ez ditut bereizten, barrenetik irteten zaizkidan bi gauza direlako eta biak behar ditudalako. Biak txandakatzen ditut, denboraren eta momentuko beharraren edo gogoaren arabera. Gustatzen zait sortzea, idaztea; gaiaren arabera poesia, nobela, kronika... idazten dut. Argitaratzeko baino, behar bat sentitzen dudalako eta gustatu egiten zaidalako egiten dut. Azkenaldian, irtitzi artikulua-eta ari naiz idazten, eta gustura nago, ikasteko ere balio didalako jardun horrek.

Maite, zuk 2018an *Pienso, luego escribo* poema liburua argitaratu zenuen. Sorkuntza lan horretan ere klasikora jo zenuen, garaikideak ez al zaitu asetzen?

M.L.: Descartes filosofoarekin lotuta idatzi nuen poema liburu hura. Izan ere, Batxilergoan filosofiarekin ate bat ireki zitzaidan; matematikak gustatzen zitzaizkidan, baina han *problemak* ikusten nituen, eta nik horrelakorik ez nuen nahi.

G.L.: Eta filosofian ez al daude ala?

M.L.: Filosofian galderak daude, eta galdera horietan erantzun posibleak. Filosofiaren hastapenetara joz gero, hor daude grekoa eta latina. Horrek guztiak asetu egiten ninduen. Zenbakirik ez nuen nahi, jakin nahi nuena zen orain dela ez dakit zenbat urte edo mende gai jakin batzuen inguruan zer pentsatzen zuten. Hori ezagututa, konturatzen gara egun modernotzat ditugun gauza asko ez direla hala, lehen ere modernoak bazirela. Askotan, klasikoak baztertu egin dira, zahartzat edo zaharkitutzat joz, baina horiek aztertuta, konturatzen gara puri-puritan daudela.

Gema, zuk itzuli duzun literaturako aurreneko liburua eleberria izan da.

G.L.: EIZIEk urtero lehiaketa bat egiten du, eta hiruzpalau edo bizpahiru liburu proposatzen ditu itzultzeko. 2020ko deialdian, Edna O'Brienen *The Country Girls* zen proposamenetako bat. Lagun batek eman zidan deialdiaren eta liburu horren berri, eta hark animatuta, lagina aurkeztu nuen lehiaketara. Ordura arte, Edna O'Brien idazlea entzutez soilik ezagutzen nuen, baina hark idatzitako ezer ez neukan irakurrita; beka eman zidatenean hasi nintzen haren inguruan sakontzen. Idazlea bera deskubrimendua izan da, oso emakume interesgarria delako. Gainera, orain dela gutxi, posta elektronikoz harekin komunikatzeko aukera izan dut. Aurrena, O'Brienen agente literarioari mezu elektroniko bat bidali nion, eta ondoren, idazleari berari idatzi nion, haren lan bat euskarara ekartzeak ilusio handia egin zidala esanez. Handik astebetera-edo erantzun egin zidan, eta esan zidan ilusio handia egin ziola nire *lovely letter*-a jasotzeak: "Eskerrik asko eta poz handia hartu" zuela zioen. 92 urte ditu. Haren erantzunak izugarrizko ilusioa egin zidan. Itzulpenaren emaitzarekin ere gustura gelditu naiz, eta oso prozesu aberasgarria izan da, asko ikasi dudana. Orain, animatutako nago horrelako beste lan bat hartzeko, literatura itzultzeko beste segurtasun bat sentitzen dut.

Zer-nolako irakurleak zarete?

G.L.: Irakurle txarra naiz, ez dut asko irakurtzen. Asko gustatzen zait leitzea, baina gauza askotarako alferra naiz. Hala ere, irakurtzen dudanean gustura jarduten dut, liburuek beste leku eta mundu batzuk ezagutzera eramaten gaituztelako eta ikuspegia zabaltzeko balio dutelako. Eguna azkar joaten zait, eta irakurtzeko unerik ez dut aurkitzen; pena da. Liburu piloa leitu nahiko nituzke, baina ez ditut irakurtzen nahi beste. Tarteka, baina, aritzen naiz horretan, eta oso-oso gustura, gainera. Genero aldetik, denetik irakurtzen dut, baina, egun, euskaraz ipuin liburu asko, gehitxo, argitaratzen direla iruditzen zait. Nik gustukoagoa dut eleberria, nobela luzea, eta egun, euskal literaturan, horren falta sumatzen dut.

M.L.: Ni eszedentzian nago, eta asko irakurtzen dut, astia dudalako. Denetik leitzen dut; agian, gutxien ipuinak eta eleberriak. Aurretik esan bezala, unean sentitzen dudanaren edota egiten ari naizen lanaren arabera irakurtzen dut: gauerako nahiago dut nobela arin edota ipuin laburren bat; gai zehatz bati buruz idazten ari banaiz, ordea, saiakera edota filosofiako tratatuen bat irakurtzen dut; eta testuren bat itzultzen ari banaiz, hari buruzkoak edo

garaikideak diren beste obra batzuk. Literatura klasikoa irakurtzen dut batik bat, eta azkenaldian, filosofiako testuak dezente.

Idazleren bat aipatuko al zenukete?

G.L.: Ez dut idazle erreferenterik, orain bat-batean ez zait inor bururatzen.

M.L.: Anne Carson Kanadako poeta aipatuko nuke. Bizimodua aurrera ateratzeko grekoa irakasten aritu dela dio bere biografian; merezi du Carsonen lana ezagutzea. Simone Weil filosofoa ere aipatuko nuke, Theodor Kallifatides idazlea, Irene Vallejo saiakeran...

Esku artean lan edo ideia ren bat?

G.L.: Nik ez, baina hilabete gutxi barru lan 'zirrargarri' bat edukiko dut esku artean, oposaketetarako ikastea.

M.L.: Beti izaten dut zerbait, ezin dut esku hutsik eta ezer egin gabe egon. Orain, denbora daukadanez, une oro ari naiz itzultzen edota sortzen. Besteak beste, maiatzean argia ikustea aurreikusten dugun *Grezia eta Erromako emakume poeten antologia* poesia liburua prozesuarekin ari naiz. Saforen liburua gisan, lan hori ere grekoz eta latinez idatzi zuten emakume poeta batzuen lanen itzulpena da. ■■■

Geure Gelatik liburu azoka, apirilaren 1etik 3ra

Maxizatzen Euskaldunon Elkarteak, Azkoitiko Udalaren laguntzarekin, emakumeek idatzitako Geure Gelatik liburu azoka antolatu du apirilaren 1etik 3ra artean Elkarguneko Herriko Plaza aretoan. Azoka hiru egunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta Elkar, Susa, Alberdania, Txalaparta, Pamiela edota Erein argitaletxeek parte hartuko dute. Emakumeek literaturan, kulturen, eta oro har, liburugintzan egiten duten ekarpena aintzat izan eta agerian jarri nahi dute liburu azokan.

Apirilaren 1ean, 17:00etan, zabalduko dute liburu azoka. Segidan, Arantxa Urretabizkaia idazleari aitortza egingo diote, Juan Luis Zabalak aurkeztuko duen

ekitaldian. 19:00etan, berriz, *Otsandreak korrika* kontaketa egingo du Amaia Zinkunegik.

Azokaren bigarren egunerako lau liburu aurkezpen prestatu dituzte: 11:00etan, Garbiñe Larrearen *Sendabelarrek dakitena* (Argia); 12:00etan, Irati Jimenezaren *Begiak zabalduko zaizkizue* (Elkar) saiakerarekin emanaldia; 17:00etan, Eider Rodriguezen (Susa) *Eraikuntzarako materiala*; eta, 18:00etan, Goiatz Landarribarren *Amez* (Alberdania).

Apirilaren 3an, berriz, Gema Lopez Las Heras azkoitiarrak itzulitako Edna O'Brienen *Landa aldeko neskak* (Erein) liburua aurkeztuko dute, 11:00etan. Segidan, 12:00etan, emakumeek idatzitako testuak irakurriko dituzte 25 lagunek.

Beltxarga beltza



KARI ALBERDI

Beltxarga Beltza (Ibil Bedi). "*Rara avis in terris nigroque simillima cygno*". Edo "hegazti arraroa lurrean, beltxarga beltzaren antzekoa". XVI. mendeko Londresko kaleetan ahoz aho zebilen esamolde hori Juvenal poeta erromatarrari leporatzen zaio. Mundu zahararentzat ez zuen ez hanka ez bururik zuria ez den beltxargaren existentziak, eta begi bistakoa da mundu berrian pentsamolde hori aldatu egin dela ustea sinesmen eskuzabal samarra dela.

Beltxarga beltza *Cygnus* generoko animalia da eta *cignus atratus* da bere izen zientifikoa. Hegaztien barruko Anatidae familian sailkatuta dago, eta Australia du ohiko bizileku. Ezaugarritzen duten elegantziak eta mitologiarekin izan duen loturak artearen disziplina ezberdinetako protagonista bihurtu dute urteetan zehar. Txaikovskiren *Beltxargen aintziratik Beltxarga beltza* deituriko filmera doa ibilbidea, eta bere geltokia ere badu ekonomiaren arloan.

Beltxarga beltzaren teoriak, edo beltxarga beltz gertakarien teoriak, historiako ezusteko gertaerak deskribatzen ditu. Horiek eragin sozioekonomiko handia dute, eta denbora bat igaro ostean aztertzen direnean, iragartzeko modukoak zirela ondorioztatzen da. Beltxarga beltzak izan ziren, adibidez, Lehen Mundu Gerra edo Irailaren 11ko atentatuak. Biak ala biak gizartearen begien aurrean aurkitzen omen ziren, baina begiradak beste nonbaiten ziren jarrita orduan, Londresko herritarrek beltxarga beltzen bila Tamesis ibaira begiratzen zutenean bezalaxe.

Bigarren urteurrena dagoeneko bete duen pandemiaren gertakaria ere *cignus atratus* bat dela dioenik bada. Ezustekoa? Hartu genuena. Eragin sozioekonomiko handiak? Latzak. Eta eraginen kasuan ez zegoen begirada alboratzerik, ez ezustean harrapatuko gintuela esaterik, ez beltxarga beltzik: koronabirusaren eskutik etorriko zen osasun mentalaren kaskartzea beltxarga zuri-zuria zen, ia gardena.

Izurritearen itxialdian zehar, gizartearen %30ak izu krisiak izan zituen, herritarren %55ari egonezinak gaina hartu zion eta biztanleriaren %5,8ak tratamendu psikofarmakologikoak jaso zituen, besteak beste. Hori guztia zenbakitan zerrendatzeak ikusgarritasuna ematen badio ere, arazoaren azalean gelditzeko arriskua dakar berarekin. Hau da, errailetan dauden problematikak hanka-puntetan aztertzeiko arriskua. Kausalitateen bila kasualitateari begira galtzeko arriskua.

Egoerak erre gaituela esatean ezin dugu ahaztu txinpartak hor zirela aurretik, eta pandemiaren testuinguruak gasolina lanak egin dituela horientzat. Hemen dagoeneko ez da errautsetatik berpiztuko den fenix hegaztirik; beltxarga beltzak soilik gelditu gara. ■■■

**BI URTE BETE DITUEN
PANDEMIAREN
GERTAKARIA 'CIGNUS
ATRATUS' BAT DELA
DIOENIK ERE BADA**

ikastola^k

hezkuntza eraldatzen



BATXILERGOKO AURREMATRIKULA

ESKABIDEAK EGITEKO EPEA:
2022ko martxoaren 28tik apirilaren 8ra

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



ikastolen elkarte

Lolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia • Tel.: 943 15 12 46
ikasberri@azpeitikoikastola.eus • www.azpeitikoikastola.eus



Izan korrika laguntzailea

EKIN KORRIKARI!

12 euroren truke, garrantzitsua lortuko
duzu: AEKren eskalategiei laguntzea.
Horrez gain, pila eta txartelaren
abantailak eskuratuko dituzu.

LORTU TXARTELA!

AEKren eskalategietan
eta korrika.eus-en

22.korrika

HITZEN

Antzerkiak Donostian
2022ko martxoaren 28tik apirilaren 10ra

"Iraurgin etxean bezala sentitzen naiz"

MANEX ANSORREGI JUARISTI ISB-KO JOKALARIA

Juaristi ISB taldeko saskibaloï jokalaria da Manex Ansorregi (Azkoitia, 2002). Bigarren urtea du Iraurgiko gizonen lehen taldean, baina, dagoeneko, taldearen zutabe nagusienetako bat bihurtu da azkoitiarra. Urrezko LEB Ligari eusteko borrokaren gakoak zein izango diren azaldu du Ansorregik.

Testua eta argazkiak: **Andoni Elduaïen eta utzitakoak.**

Urrezko LEB Ligan jarraitu ahal izateko borrokan ari zarete. Uste bezala al doa denboraldia?

Gure borroka mailari eustea izan da denboraldiaren hasieratik. Urrezko LEB Ligara igo ginen bi taldeak saïlkapeneko azken bi postuetarako hautagaiak ginela uste zuten askok, baina, oraingo, ez da horrela. Mailari eusteko lehian bete-betea sartuta gaude. Gutxi falta da denboraldia amaitzeko, eta ea helburua lortzeko gai garen. Hori horrela izan dadin, borroka egingo dugu.

Zure ibilbidearen hastapenetara joz, zerk bultzatu zintuen saskibaloira?

Ez nintzen askok uste duten bezain goiz hasi saskibaloian jokatzen. 12 edo 13 urte nituela hasi nintzen Iraurgi saskibaloï taldean. Nire lagun onenek saskibaloian jokatzen zuten ordurako, eta probatzeko asmoz eman nuen taldean izena. Gehienbat, lagunekin jokatzearen hasi nintzen ISBn. Aurrez, pilotan eta futboleko jokatzen nuen, baina kirol horietako bat utzi beharra egokitu zitzaïdan. Futbola eta saskibaloia uztartu nituen gero, baina, azkenean, saskibaloïaren aldeko hautua egin nuen. Ez nengoen oso ziur, baina lagunek saskibaloia hautatu zuten, nik ere horrela egitea erabaki nuen. Azkenean, nire gustuko kirola bihurtu da saskibaloia.

Koskaz koska gora egin duzu urte gutxiren buruan. Zer-nolako balioa ematen diozu horri?

Duela bi urte egin nuen debuta ISBren lehen taldearekin. Junior mailako jokalaria nintzen artean, baina lehen taldeko jokalaria bat min hartuta zegoela eta, dei bat jaso nuen. Hasiera batean, entrenamenduetan laguntzera joaten nintzen, baita etxetik kanpoko zenbait partidatar ere. Lehen taldean sartu, ordea, iaz sartu nintzen. Kantxan gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatzen naiz. Lehen taldeko kidea izateko aukera eman didate, eta zorionez, ondo egin ditut lanak. Horregatik guztiagatik, gustura nago orain.

Nolako ari da izaten zure saskibaloï ibilbidea?

Joan zen urtera arte, lagunekin jokatzen nuen saskibaloian. Iaz, berriz, atzerrikoak ziren eta ezagutzen ez nituen jokalariekin hasi nintzen jokatzen. Hori dela eta, lagun gehiago egiteko aukera izan dut. Orain, esaterako, azpeitiar batzuk ere badituz taldean, eta oso harreman ona egin dut horiekin; kuadrillakoak bezala dira niretzat. Ederra da pertsona horiek guztiak taldean izatea. Bestalde, lehen taldeko kide naizenetik, zortea ere izan dut: batetik, Zilarrezko LEB Ligako kopa irabazi genuelako; eta bestetik, Urrezko LEB



Ligara igotzea lortu genuelako. Oraingoz, une onak besterik ez ditut bizi izan saskibaloian.

Gogoan al duzu lehen taldearekin lortu zenuen aurreneko saskiratzea?

Gogoan dut, bai. Juaristi ISBk Circulo Gijon taldearen aurka zuen Zilarrezko LEB Ligako partida Azpeitiko kiroldegian, eta neurketa hura baino lehen, junior mailako taldearekin izan nuen entrenamendua. Taldeari laguntzera joan nintzen partida hartara, baina ez nuen uste jokatu nuenik. Bi taldeen markagailuko aldea, ordea, handia zen, eta jokatzeko aukera izan nuen. Azkenengo bost minutu inguru jokatu nituen, eta orduan lortu nuen lehen saskiratzea. Ondo gogoan dut saskiratze hura, arrastoa utzi du nigan.

Etxean eta kasik maila gorenean kirola egiteko aukera duzu. Nola sentitzen zara ISBn?

Iraurgin etxean bezala sentitzen naiz; ia bizitza guztia daramat talde horretan jokatzeko. Taldekide eta klubean lan egiten duten pertsona asko txiki-txikitatik ezagutzen ditut, eta horregatik, bertan nago ondoen. Gainera, saskibaloian etxetik, familiarengandik nahiz lagunengandik gertu jokatzeko aukera dut.

Saskibaloian, bereziki, badago atzerriko egonaldiak baliatzeko joera. Inoiz pentsatu al duzu horretan?

Egia esan, ez dut inoiz horretan pentsatu. Egunen batean aukera iristen bada, pentsatuko dut, baina, orain eroso sentitzen naiz etxean, aurrez esan ditudan arrazoi horiegatik.

Ibilbide berri baten hasierako urteetan zauden murgilduta. Ba al duzu saskibaloian lortu nahiko zenukeen erronkarik?

Ez dut helburu finkorik zehaztuta. Ahalik eta maila onena erakustea da nire helburua. Modu horretan, ahalik eta goren iristea gustatuko litzaidake; horretan ahalegindu nahi dut.

Zer da saskibaloia zuretzat?

Bizitzako zatirik garrantzitsuenetako bat da, garrantzitsuenak ez esateagatik. Egun osoa igarotzen dut saskibaloia lotuta: goizean ez bada, arratsaldean entrenamendua izaten dugu, eta bestela, arlo fisikoa landu behar izaten dugu. Horri bidaiak erantsiz gero, aste osoa igarotzen dugu saskibaloia bueltan.

Kirola egiteko moduak aldatuz doaz urtez urte.

Kantxako entrenamenduek adinako garrantzia dute handik kanpoko saioek, ezta?

Sakrifizio handiko kirola da saskibaloia.

Gimnasioan ordu asko igaro behar izaten ditugu, baita aurkaria aztertzen ere; izan ere, bideoetan

ikusten dugu aurrean izan ditzakegun jokalariek nola jokatzen duten. Kantxara joan eta han entrenatzeaz gain, gauza asko egin behar izaten ditugu partidarako behar bezala prestatzeko.

Dirudiena baino denbora gehiago eskaintzen diogu saskibaloia, baina gustura egiten dugun zerbait da, eta hori da garrantzitsuenak.

Une bikainak bizitzeko aukera izan duzu denbora gutxian. Zein izan da bereziena?

Zilarrezko LEB Liga irabaztea izan da bereziena.

Ikusten genuen horretarako aukera izan genezakeela, baina ez genuen inondik inora espero. Ligaren hasieran, garaipen ugari lortu genituen eta sailkapeneko goiko postuetan kokatu ginen. Finalean, Bartzelonaren bigarren taldea izan genuen aurkari, sekulako taldea. Azpeitian joaneko partida irabazita baina tentuz iritsi ginen itzulerako partidara, eta han ere irabazteko gai izan ginen. Orduko egoera zela eta, ez genuen txapelketa behar bezala ospatzeko aukerarik izan, baina gustura gelditu ginen lortutakoarekin.

Nola deskribatuko zenuke zure burua saskibaloia jokalar bezala?

Intentsitate handiarekin jokatzen duen jokalaria naizela esango nuke. Taldeari ahal dudana guztian laguntzen saiatzen naiz, hori baita nire helburua. Nik ez dut taldeko izarra izaterik nahi; taldeari nahiz albokoari ahalik eta gehien lagundu eta egin behar diren lan guztiak egin nahi ditut. Finean, taldeko jokalaria izatea da nire nahia.

Erasoa edo defentsa duzu nahiago?

Agian ez dute jokalar askok esango, baina pertsonalki, nahiago dut defentsa. Erasorako aukerak izateko, defentsako lana egin behar da lehenik. Niretzat ez da sakrifizioa defentsa lana egitea.

Taldeko jokalar gazteenetako bat zara. Aholku asko entzutea egokituko al zaizu?

Talde gaztea gara, baina esperientzia duten jokalariek ere baditugu; Ibon Guridi, esaterako. Jokalariek beti daude laguntzeko prest, eta garrantzitsua da horiei kasu egitea. Guretzat berria da Urrezko LEB Liga, baina Ibon-eta jokatura daude aurrez, eta batzuetan haiek esaten digute zer egin behar dugun. Eskertzekoa da gurekin duten jarrera.

Zein izan da gehien sufriarazi dizun aurkaria edo taldea?

Ez nuke jakingo bat esaten, baina beharbada, taldekideren batek. Orain min hartuta dago



Ansorregi baloia saskira jaurtitzen. UTZITAKOA

**"AHALIK ETA GOREN IRISTEA
GUSTATUKO LITZAIDAKE; HORRETAN
AHALEGINDU NAHI DUT"**

**"ERASOAN AUKERAK IZATEKO,
LEHENIK ETA BEHIN DEFENTSAKO
LANA EGIN BEHAR DA"**

**"GOI MAILATIK IRITSITAKO
JOKALARIEKIN ETA TALDEEKIN,
LIGAK IZEN ONA HARTU DU"**

taldekide hori, baina hura defendatzea zaila egiten zitzaidan. Errebote guztiak kentzen zizkidan, eta gogor jokatzeko nire aurrean. Hari esker asko ikasi nuela esan dezaket, eta orain gogorragoa naizela kantxaren barruan.

Urrezko LEB Ligako jokalaria onena izendatu zintuzten 20. jardunaldian.

Etiket kanpo irabazi genuen lehen partidaren, jardunaldiko jokalaria nabarmenen artean sartu ninduten. Zorionez, partida ona egin nuen orduko hartan. Niretzat garrantzitsua izan zen izendapena; batetik gaztea naizelako, eta, bestetik, aurkari on baten aurkako partida izan zelako. Maila horretan eta jokalaria onen artean jokatzeko gai naizela ikusi nuen, eta neure buruarekiko konfiantza irabazteko ere balio izan zidan.

Bigarren mailako txapelketa da zuena, baina bigarren mailakoa izanagatik, maila handikoa da, ezta?

Lehen mailan aritutako jokalaria asko daude Urrezko LEB Ligan. Talde onak ere badira, Movistar Estudiantes, esaterako. Lehen mailan aritu izan da urte luzez, eta gainera, onenen artean ibili da. Marc Gasolek ere NBA-n jokatu du urteetan, baina orain gure mailan dago. Goi mailatik iritsitako jokalariei eta taldeei esker, izen ona hartu du Urrezko LEB Ligak. Horrek guztiak berarekin dakar txapelketa jende gehiagok ikustea.

Aldagelan munduko punta desberdinetako jokalariai zaudete. Giroa sortu beharko duzue urtero...

Denboraldiko lehen egunetan, atzeritik etorritako jokalariai ezagutu egin behar izaten ditugu. Taldekide izan ditudan mutilak jatorrak dira, eta beti egon dira laguntzeko prest. Atzeritik etortzen diren kideei laguntzen ahalegintzen gara etxeko hiru jokalariaiok, etorrera ahalik eta erosoena izan dadin haien zati. Ahalegintzen gara guztiak etxean bezala sentiarazten.

Mailari eusteko borroka egitea da zuen aurtengo zeregina. Zein izango da Urrezko LEB Ligan jarraitu ahal izateko gakoa?

Garrantzitsua izango da aurkari zuzenei irabaztea, baina are garrantzitsuagoa taldea bat eginda egotea. Alboko lagunarekin konfiantza eta gure artean harreman ona baldin baditugu, nabaritu egiten da jokatzeko. Iaz ere guztiok bat eginda egon ginen, eta gauza politak lortu genituen. Aurten ere hori izango da mailari eutsi ahal izateko sekretua. ■■■



ZERBER BURDINDEGIA

BEHAR DUZUNERAKO ALDI GUZTETAKO BAKAK ARIKOTUKO DITUZU GURE BURDINGIAN. INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BRIKOLAJEA, ETA ABARREKO TRESNERIA. HALA NOLA, TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR.

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA: 39-20720 AZKORIA - 938 35 31 25
www.ferreteriazerber.com

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450


Bertako lagailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Solbuespenik gabe.

 KODIGUAK JARRAIATU
 ZURE JARRAIAK ERABERTZEN
 HARRAPAZ GUDAK

www.bertako.eus



Martxoko Maxizatzen aldizkarian **Zakelmari** non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 33. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxizatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, **Marivi Alberdi** bazkideari egokitu zaio Herrixen merkatarri elkarteak emandako **50 euroko erosketa bonoa**. Datorren hilean, Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta zozkatuko du Maxizatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna apirilaren 22a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo erredakzioa@maxizatzen.eus helbide elektronikora.



*Komertzioa
txiki
herrixen
esentzia*





"26. aldiz aterako naiz, eta azkenengoa izango dela esango nuke"

LUIS SUDUPE 'EGURROLA' PROZESIOKO PARTAIDEA

90eko hamarkadarekin bat hasi zen Luis Sudupe 'Egurrola' Aste Santuko Azkoitiko prozesioan parte hartzen, Jose Mari Oteiza 'Kaxerok' lekukoa emanda. Ordutik, San Miguel aingerua antzeztzen du azkoitiarrak, armadura handiko trajea jantzi, eta ezkutua, kaskoa eta ezpata lagun dituela.

Testua: **Mireia Olariaga**. Argazkiak: **Maxixatzen eta utzitakoak**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Azkoitia arrazoi askogatik da ezaguna, baina aukeratzen hasita, bi nabarmendu daitezke: bata da pilotarien sehaska dela, eta bestea, Aste Santuko prozesio landuak dituela. Inguruko herriekin alderatuta, prozesioenak garrantzi handiko egunak dira. Gipuzkoako jende ugari gerturatzen da egun horietan herrira, eta ezin ahaztu Aste Santuko argazki txapelketa bat irabaztear egon zela Azkoitia bere garaian. Azkenean, ordea, Segurak hartu zion aurre. Goierritarrak nagusitu baziren ere, asko dira Azkoitiko Ostiral Santuko prozesioak hangoak baino nahiago dituztenak. Batzuek egun horiek agendan ondo apuntatuta izaten dituzte, ekintzetan parte hartzeko: santuak eramaten, haiek jantzen edota egunean bertan kandelak jartzen. Horien artean dago Luis Sudupe *Egurrola*, Ostiral Santuko prozesioiko San Miguel aingerua. Armadura handiko trajea jantzi ohi da, ezkutua, pisu handiko kaskoa eta ezpata lagun dituela. Adituen arabera, eramaten duen metalezko ezpata 1918. urtean egina da.

Herritar askorentzat San Miguel aingeruaren pertsonaia antzeztzen duena "betikoa" da, baina ez dakite Suduperen aurretik Jose Mari Oteiza *Kaxerok* irudikatzen zuela hura. Gauzak, ordea, egun batetik bestera aldatzen dira, eta horixe gertatu zitzaion Suduperi: prozesioa baino astebete lehenago, Kaxerok aingeruaren papera antzezteko lekukoa eman zion. "Ez naiz urtearekin zehatz gogoratzen, 1990-91 ingurua zela esango nuke. Ostiral Santu aurreko astean esan zidaten aingeruaren papera egin beharko nuela, Kaxero ez baitzegoen osasunez ondo. Urduri jarri nintzen, eta baiezkua eman nuen; gero, damutu ere egin nintzen", dio barrez Egurrolak. Baiezkua eman eta egin. Kantzelera joan zen lehen entsegua egitera, eta prozesio eguneko kantua jarrita, aingeruaren pausoak entseatu behar izan zituen behin eta berriro. "Orduan Genaro apaiza zen herriko erretorea, eta hark esaten zidan nola egin behar nuen. Erraza ematen du, baina ez. Nire aurretik armatuak joaten dira, eta nik, bandaren musikaz gain, haien lantzen hotsarekin bat joan behar izaten dut.





Aurreneko hartan, pentsatze hutsarekin izerdi ederra ateratu nuen, baina aldi berean, motibagarria ere bazen".

Egun luze eta neketsuen ondoren, iritsi zen ikasitakoa Azkoitiko kaleetan erakusteko eguna. Urduri bezain pozik hartu zuen Egurrolak elizarako bidea. Arropa eta kasko astunak jantzi, ezpata altxatu eta aingerutxoekin batera ateratu zen kalera. "Hasiera batean, eliz ataritik Errebalera joaten ginen. Handik, Beti Poz elkarte aldera hartzen genuen, eta gero, elizara. Kaskoak izugarritzko pisua du, eta egundoko nekea jasan nuen. Kaskoari koreografiaren garrantzia batzen badiozu, sufritzera iristen zarela esan daiteke. Nire baitan behin eta berriz esaten nuen ongi egin behar nuela, baina gero erabaki nuen horretaz ahaztea eta momentua bizitzea. Egun ederra izan zen. Amaitutakoan, Genaro zenak 3.000 pezeta eman zizkidan, emaztearekin afaltzera joateko".

Jende falta

Lehen prozesioaren ondoren, herritarrak gustura, eta aingerua ere bai. "Oso ongi egin nuela esan zidaten, eta konturatu nintzen merezi izan zuela urduritasunez betetako egun gogorrek pasatzeak". Ordundik, aingeruaren papera egiteaz gain, Doloretako ama birjinari argiak ere jartzen dizkio Sodupe. 35 urtez izan zen Azkoitiko brigadako elektrikaria, eta Aste Santuko prozesioarekin bat egin zuenetik, urrezko harritxoak dituen santuari argiztapena berak jartzen dio. "Prozesioa baino bi egun lehenago joaten naiz elizara Doloretako amari merezi dituen lau farolatxoak jartzera. Ez

dago huts egin dudan urterik; atsegin dut lan hori egitea".

Azkoitiak Aste Santuan badu nolabaiteko xarma, baina azken urteotan gauzak asko aldatu dira, batez ere jendea falta delako. Lehen, Ostegun Santu bezperan Santa Klaratik parrokiara eramaten zituzten ostiralez ateratu behar zituzten pausoak, baina orain, horretarako jenderik ez dagoenez, kamioian eramaten dituzte. "Gure garaian ez zen inongo arazorik egoten santuak alde batetik bestera eramateko. Jendeari gustatu egiten zitzaion horretan parte hartzea; herriko ekintza bat gehiago zen askorentzat. Orain, ordea, jendea oporretara joaten da", dio Sodupek. Luis Arrizabalaga ibiltzen da azken unean jendearen bila, hara eta hona. "Batek baietz erantzuten dio, eta besteak ezetz; zoratu egiten da gaixoa. Nire

Luis Sodupe

- **Adina:** 72 urte.
- **Ikasketak:** 14 urterekin elektrikari lanetan hasi nintzen, eta horretan aritu naiz beti.
- **Lanbidea:** Jubilatua. Udaleko brigadako langilea eta elektrikaria izan nintzen 35 urtez.
- **Elektrikaria ez banintz...** Ez dut nire burua beste ezertan ikusten.
- **Lanetik ateratzean gogoko nuen...** Pilotan aritzea. Profesionaletan ibili nintzen zazpi urtez.



iloba Aitor animatu zen urte batean, eta bi urtez jarraian aritu zen santuak eramaten. Urte haietan, familiako bi elkartu ginen prozesioetan, eta beti izaten da berezia une horiek gogoratzea".

Ez du arrazoi faltarik. Izan ere, urte batzuetan, prozesioetan ez dira pauso guztiak atera, eta horrek, nolabait, haren gainbehera eragin du. "Nabarmentzekoa da lehen gizonek mugitzen

zituztela prozesioetako santuak, eta azken urteotan emakumeak ere animatu dira. Pozgarria da horrelako aurrerapausoak ikustea". Santuak mugitzeko eskasiari, horiek muntatzeko eta janzteko herritarren falta batu behar zaie. Lehen, Santa Klara komentuko mojek egiten zuten lan hori, baina azken urteetan hutsik da komentua, eta herriko boluntarioek janzten dituzte Ostiral Santuan Azkoitia "hain eder" egiten duten pausoak. "Begi bistan dago hori ez dela herritarren arazoak soilik. Parrokoak ere aldatu egin dira, eta haiekin ohitura batzuk ere bai. Joxe Mari Astigarraga herriko erretore izendatu zutenean, Erramu Eguneako ibilbidea kendu egin zuten; ez ziren konturatzen Aste Santua egun horretan hasten zela. Pixkanaka, guztia xarma galtzen hasi zen, eta Ostiral Santuko prozesioa ere kentzea nahi izan zuten. Dena kentzea zuen hark beti ahopean. Eskerrak jendea horren aurka agertu zen, eta ibilbide motzarekin bada ere, egun hori ospatzeko aukera dugun oraindik".

Sudupek San Miguel aingeruaren papera betetzen duenetik, lautan soilik geratu da prozesioa bertan behera: bitan eguraldiagatik eta beste bietan COVID-19aren izurriagatik. "Bi urtez jarraian ezin izan dugu prozesioa egin, eta uste dut aurtengoa berezia izango dela. Gainera, 26. aldiz aterako naiz, eta horrekin bukatuko dira nire lanak. Askok esango dute urtero gauza bera esaten dudala, baina gorputzak gelditzeko eskatzen dit". Dena den, hala aurreratu du: "Egun ederrak datoz herrira". ■

GARAJE

AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK
KONPONTZEN DITUGU**

**Astelehenetik ostiralera:
08:30-12:30 / 14:30-19:00
Larunbatean itxita**

Classic

San Joan, Axiri 13
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

OSKAR BERNAL GOMEZ
talleraxiri@gmail.com



HALI DA
LIRDINGA!

SUDOKUAK

Behoko sudoku hauek gaineke irudiko laguntxoan ibilerarekin dute zerikusia. Barraskiloa ASTIRO doa beti, eta erbia, berriz, ARIN. Osa itzazu bi sudokuak, hutsik dauden laukietan behar diren hizkiak idatziz (seiko sudokuak A, S, T, I, R eta O, eta lauhoan A, R, I eta N). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta arean bakoitzeko.



BILATU

Animalia hauetatik bat ez dago mundu-mapan. Zein?



HANDITIK TXIKIRA

Ordene itzazu hartz hauek handitik txikira, letik 9rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienari 9).



NOLA SORTZEN DIRA UMEAK?

Nola lortzen dira erantzunik gehienak? GALDETUZ, jakina. Hitz ederri, sudoku handi hau osatzeko, Zortzi hizki dituzu hutsuneak beteitzeko (G, A, L, D, E, T, U eta Z).





Hara!


Gaixoak pinguinoak!
Laster beren bizimodua
egokitu behariko dute,
Lurraren tenperatura
igotzen ari baita. Beno,
baina hemen ez dirudi
harren garzki daudenik
ere, ezta? Aurki itzazu
bi irudien artean dauden
aldeak, 16 dira guztira.



DOMINOAN



Bete itzazu
lauki zuriak
domino-zati
honek
zentzua
izan dezan.



Eguzkia · Lurra · ilargia · meteoritoa · planeta · izarra

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Ezkontzen bueltako kontuak

TESTUA: KEPA ALBERDI

Ezkontza bi pertsonak elkarrekin bizitzeko asmoz hitzarmenez egiten duten zeremoniatzat badugu ere, erritu horrek aldaketa sakonak bizi izan ditu, eta orain trataera arinagoa ematen zaion arren, duela gutxira arte betebeharrak juridiko eta sozial asko sortzen zitzaizkien ezkongaiak.

Azkoitian ere mende askotan erlijio eta lege zibil zorrotzei lotutako usadioek bideratu izan dute ezkontzaren bueltako kultura. Oraingo belaunaldiak *kapitulazioa*, *arreo*, *ezkondea*, *arrak* eta *ezkonsaria* hitzak arraroak bazaizkie ere, ezkontzarekin lotutako errituen parte izan dira azken mendeetan.

Lehen, herriko neska-mutilek elkar ikusteko aukera gutxi izaten zuten, eta igandeetako meza ondorena edo erromeria izaten ziren horretarako paradarik egokienak. Elkar ezagutzeak bere bidea egiten zuenean, bikotea kalean bakarrik ibiltzen hasten zen, eta hori izaten zen herritarren aurrean bikotearen hartu-eman formalaren adierazle nagusia.

Behin bikoteak ezkontzeko erabakia hartzen zuenean, bi ezkongaien familien arteko lotura estutzeko ohitura zegoen, ondoren ezkontza eskatzeko, ezkontzarako hitzarmena zehazteko eta opariak trukatzeko. Lehenengo betekizuna ezkongaien familien

arteantzatzen zen ezkontza hitzarmenari forma ematea zen. Itun hori ezkongaien gurasoek hitzartzen zuten horien esku-hartzearekin, eta kasu askotan, interes ekonomikoek lehentasuna zuten bikotearen amodioaren gainetik. Semea edo alaba etxera ezkontzeko bazen, ezkontza eta gero senar-emazteak bete beharreko elkarbizitzarako arauak adosten ziren, etxearen ardura ziurtatzea eta etxekoekin izango zituzten betebeharrak zehazteaz gain. Adibidez, Azkoitian ohikoa zen baserrian geratzen ziren ezkonberriek hango gurasoen kargu hartzea, gaixotzen zirenean zaintzeko eta haien ehorzketak eta hileta elizkizunak ordaintzeko. Horrez gain, baserriko seme-alabak mantendu behar zituzten han bizi ziren bitartean, eta ezkonsaria eman horiek ezkontzen zirenean. Noiz edo noiz, elkarbizitzan arazoak sortzen ziren senar-emazte zaharrenaren eta gaztearen artean, eta kasu horietarako ere, baserria uztera behartuta aurkitzen ziren senar-emazte

**EMAZTEGAIK,
EZKONDU AURRETIK,
'EZKONSARIA' IZENAKO
EKARPENA EGIN BEHAR
IZATEN ZUEN**

gazteentzat kalte ordaina hitzartuta izaten zen aurretik. Alde guztiek sinatu ondoren, ezkongaiak eta beren gurasoak herriko taberna batera joaten ziren zerbait jatera.

Bestalde, emaztegaiak, ezkontza aurretik, ezkonsaria izeneko ekarpen bat egin behar izaten zuen: batetik, ohea, komoda, aulkiak, ohe gainekoa edota izarak osatzen zuten arreo zegoen, eta bestetik, diruz osatutako dotea. Arreo, amaren ardurapean osatzen zuen emaztegaiak neskato zenetik. Etxera etorriko zen ezkontidea mutila bazen, hark dotea bakarrik eramaten zuen. Aurreko mendeko hirugarren hamarkadan emaztegaiaren dotea hamar mila errealekoa zen batez beste, horietatik zortzi mila errealekoa eta gainontzekoa dotea. Ezkontza kontratua sinatzeko egun berean, emaztegaiaren aita notaritzara joaten zen arreoaren prezio zerrendarekin eta dotearen diruarekin. Horiek biak emaztegaiaren gurasoek ordaintzen zituzten. Era berean, ohikoa zen baserriko oinordekoak beste anaiei dotea ematea horiek ezkontzen zirenean.

Gurasoen baietza jaso eta gero, ezkondea egiten ziren. Ezkontza egunaren aurreko hiru jaietan egiten ziren ezkondea, Meza Nagusia, eta herritarrei ezkontzaren berri ematen zitzaion han.



Azkoitiko ezkontza baten unea, joan zen mendean. ARROITAJAUREGI ARGAZKI FUNTSA

Ezkondeiaren fundamendua, ezkongaiak ezkontzeko nahia agertzeaz gain, nobaiti ezkontzaren aurkako argudioak edo erreklamazioak egiteko aukera ematea zen. Bitxia da Elosuan egiten zen tradizio bat: elizan bigarren deiunearen berri eman eta gero, ohikoa zen senargaia anaiaren laguntzaz emaztegiaren etxean lehen aldiz sartzea, sorbaldan zahatoa zuela. Ohitura hori botakadia izenez ezagutzen zen.

Garai batean, ezkontzak eliz atarian ospatzen ziren, eta nola ez, egun horretan eguraldi ona egitea zen ezkongaien desioetako bat. Aspalditik datorren ohitura da andregaiak 13 arrautzako dozena entregatzea Santa Klara komentuko lekaimeei, ofrenda moduan, ezkontza egunean eguraldi ona egiteko otoitz egin zezaten. Horri lotuta, beti uste izan da ezkontza egunean euria eginez gero, ezkondu berrien bizitza zoritxarrekoa izango zela, batez ere emaztegiaren kaltean.

Ezkondu behar zutenen "despedida" izenaz ezagutzen den ospakizunez ere ezin ahaztu. Senargaiaren despedidan, normalean, kuadrillako mutilek agur bazkari oparoa dastatzen zuten, ondoren parranda ederraz gozatzeko. Emaztegiari berriz, errefresko izeneko despedida egiten zitzaion, eta azken finean, izenak berak dioena

egiten zuten: mokaduarekin batera freskagarri bat hartu lagunartean. Gonbidapenei dagokienez, lehen hartu-eman gehiago izaten zen auzokoekin, eta horiek ere ezkontzara gonbidatzen ziren. Elosuan, aurreko mendeko hirugarren hamarkadaren hasieran, lehengusuak eta lagunak joaten ziren zeremonia erlijiosora, denak gazteak. Gurasoak, osaba-izebak eta beste gonbidatuak etxean egoten ziren, elizako segizioaren zain. Horrez gain, senideen eta auzokideen opariak espeziatan egiten ziren Elosuan. Arropak oparitzeko ohitura zabaldua zegoen, eta hango amona batek kontatua da ezkondu aurretik senargaiaren anai-arrebei alkandora edo mantar bana oparitu ziela, eta gurasoei, kamisetak. Pare bat hamarkada geroago, hurbileko senideek kristaleria, kafe kikara eta antzekoak oparitzen zituzten bitartean, beste senideek eta lagunek dirua ematen zuten.

Ezkontzaren bueltan beste usadio bitxi asko jartzen ziren praktikan, horietako asko gaur egun sinesgaitzak. Egun, leku batetik bestera bidaiatzea eroso egiten zaigu, baina lehen baliabideak urriak ziren, eta zailagoa zen herri batetik bestera mugitzea. Horregatik, normalena ezkontza herri berekoen artean egitea zen. Ondorioz, endogamia kasuak ere ezagutu ziren gure herrian,

eta ohikoa zen norbait alargun geratuz gero, bere ezkontide zenaren anaiarekin edo ahizparekin berriz ezkontzea. Era berean, guztiz ohikoa zen etxe bateko anaiak beste etxe bateko ahizpekin ezkontzea. Kasu horretan, anaia bat hiltzen bazen, beste anaia egiten zen haren familiaren kargu. Ezkongaietako bat dolu aldian bazegoen, ezin zen ezkontzarik egin, eta horregatik, dolu aldia laburragoa izaten zen. Aitzitik, gaur egun ezkontzeko egunik aukeratuena larunbata bada ere, garai baten asteko edozein egunetan ezkontzen ziren, asteartean eta ostiralean izan ezik, zorte txarreko egunak zirelako. Goizean goiz egiten zen ezkontza zeremonia, goizeko bederatziak aldera beranduenez. Gure herrian bazen goizeko seietan ezkontzen zen bikote pobrerik ere, arropa dotoreak, musika eta ezkontzari lotutako ohitura arranditsuak sailhesteko, eta horrela, herritarren aurrean lotsagarri ez geratzeko. Ezkondu aurreko ohitura horiek eta beste usadio bitxi ugari ezagutu zituzten gure aiton-amonek, eta garaiko gizarteko ohiturak modu hartan errotuta zeudenez, halaxe bete behar; zer erremedio. Eztei zeremonian eta horri lotutako ondorengo ohituretan ere bazen beste hainbat erritu, baina kontu horiek bigarren atalerako utziko ditugu. ■■■



Irizar sendiaren ezkontzaren irudi bat.



Arreoaren arropa.



13 arrautzako dozena entregatzen zen Santa Klarako komentuan.

Bizitza fraidetzari eskainia

Beneditar komunitateak ia ehun urteko ibilbidea egin du Estibalizko Santutegian, eta mende erdiz, Juan Luis Plazaola azkoitiarraren aterpe ere izan da. Hiru fraide bizi dira egun Arabako santutegi horretan, eta adinean aurrera egin dutela eta, hura uztea erabaki dute hirurek, "etxea handi" geratu zaielako.

Testua: **Ane Olaizola.**
Argazkiak: **utzitakoak.**

Gasteiztik zortzi kilometrora dago Estibalizko Santutegia, Argandoña herrian. Muino malkartsu baten tontorrean, Arabako lautadaren erdian, ikus daiteke estilo erromanikoaren harribitxi den XI. mendeko monumentu sonatua. Monje beneditarrak izan dira haren zaindari 1923. urteaz geroztik, eta komunitate horrek uztear du ia mende oso batez etxe izan duena.

Hango fraidetako bat da Juan Luis Plazaola azkoitiarra, eta hark ere Estibalizko santutegia agurtuko du aurki, 50 urtez bizileku izan ostean.

Beneditar azkoitiarrak bizitza osoa darama fraidetzari eskaintzen. Floreagan ikasketak eginda, 10 urte zituela fraide mutil egin zen Lazkaoko (Gipuzkoa) Santutegian. "Azkoitian, mertzenarioetan ikasi nuen, eta ikasketekin jarraitzeko asmoz joan nintzen Lazkaora. Bokazio aldetik ardura gehiago hartu nuen han; abitua hartu nuen", adierazi du Plazaolak. 25 urtera arte egon zen Lazkaon, eta handik, Estibalitzera lekualdatu zen. "Teologia ikasketak amaitzera etorri nintzen Estibalitzera, eta urtebete igaro zenean, Lazkaoko nagusiek bertan geratzea eskaini zidaten. Egia esan, ondo egokitu nintzen Estibalitzera, eta hemengo martxari helduz jarraitu nuen nire ibilbidea, santutegiaren zerbitzura".

Arabako zaindaria da Estibalizko amabirjina, eta haren zerbitzura egon dira beneditarrak ia mende oso batez. "Arduraz eramaten dugu santutegiaren zerbitzua, eta etxeko bizimoduari dagokionez, gure arauak ditugu. Batez ere, eliz otoitza da gure egitekoa; egunean





hiruzpalau ordu igarotzen ditugu errezoan, eta egiteko hori ondo daramagu hiruron artean". Egun santutegian bizi diren hiru fraideek "bizimodu lasaia" dute, eta zehazki, abestien zein organoaren ardura izan du azkoitiarrak. Komunitatearen bizimoduan, berriz, administratzaile lanetan aritu da. "Azken urteetan, berriz, mantenuko arduradun izan naiz".

Etxea, "handiegi"

Benedictarraren hitzetan, azken urteetan "apaldu" egin da Estibalizko giroa. Azkoitiarrak gogoratzen duenez, dozena bat fraide izango ziren hara bizitzera joan zenean. Egun, berriz, hiru besterik ez dira bizi han, hirurak adinean aurrera eginak. Izan ere, 75 urte ditu Plazaolak, eta hura da santutegiko gazteena; besteek 80 eta 90 urte dituzte. Fraideak jakitun dira hiru lagunek santutegi baten ardura izatea "gehiegizkoa" dela. Argi adierazi du azkoitiarrak: "Etxea handia da". Egoeraren aurrean, fraideek santutegia uztea erabaki dute.

Azkoitiarraren esanetan, "aspalditik" zegoen kolokan Estibalitzen etorkizuna, baina orain hartu dute santutegia uzteko erabakia, fraideen lekuko faltak bultzatuta: "Jende berririk ez da sartu, eta etorri denak ez du iraun". Hark aitortu duenez, ez dute jakin santutegira "jendea erakartzen", eta azken urteetan "gero eta zailago" ikusi dute pertsona berriak etxean hartzea eta horiek hezte. "Ez genuen bokazio berriak hasteko girorik sortzen".

Azkoitiarraren hitzetan, Estibalizko fraideek duten adinagatik izan daiteke hori: "Gaur egun, Santo Domingo Siloskoaren [Burgos, Espainia] monasterioan badaude erlijiosoak; arabarrak, gainera. Haietako bat gurean egon zen bizitzen, baina ikusi zuen gu zaharregiak ginela eta ez zegoela bere adineko inor. 30 bat urte izango zituen fraideak, eta Silosko santutegira joatea erabaki zuen". Mende erdiz bizileku izan duen etxea uztea "zaila" bezain "mingarria" egingo zaio azkoitiarrari, baina jakin badaki ez dagoela beste erremediorik. Gainera, Estibalizko hiru fraideek berriro Lazkaon hartuko dute aterpe, eta hirurek ondo baino hobeto ezagutzen dute hango santutegia. "Lazkaon hazi ginen, eta gaztetako urte horiek garrantzi handia izaten dute. Guztiok ezagutzen dugu han elkar, gutxienez urtero elkartu izan baikara hamaika gauza egiteko. Orain gertuago ibiliko gara, besterik ez". Azkoitiarrak jakin badaki Estibalizko santutegian bizi duten egoera "orokorra" dela eta lekuko falta kongregazio guztietan bizi dutela. Gainera, monasterio baten bizitzen hastea "aldaketa handia" dela azpimarratu du. Santutegi batzuek, ordea, "bere horretan" eusten diotela ere berretsi du erlijiosoak, eta Santo Domingo Siloskoa zein Leirekoa (Nafarroa) jarri ditu adibidetzat: "Egia da egoera ez dela duela 40 urteko bera, baina gogor daude biak". Santutegiena ez ezik, Azkoitiko komentuen egoera ere ezagutzen du Plazaolak, eta ikusi du horien ateak ixten joan direla azken urteetan. "Aurrenik karmelitak izan ziren, eta gero klaratarrak. Santa Kutzeko komentua ere itxita egon da, baina Brigitek itzuli direla jakin dut". Sorterriarekin duen harremanaz galdetuta, berriz, izurria hasi baino lehen herria urtero bisitatzen zuela esan du, eta senideekin igarotzen zituela oporrak. Dena den, pandemiaren eraginez, azken bi urteetan "apenas" izan da Azkoitian.

Etorkizuna airean

Estibalizko bizilagunek udazken aldera espero dute etxea uztea, baina oraingoz, ez dute epe mugarik. Dena den, zehaztuta dute agurreko ospakizunaren noiz izango den: irailaren 12an, Estibalizko amabirjinaren egunean. "Azken boladan jendea oso adeitsu azaldu da gurekin; gu santutegitik joatea beraientzat ere zaila izango dela adierazi digu". Izan ere, Euskal Herrian ezaguna da Estibalizko santutegia, eta haren ondare erlijiosoak zein artistikoak bultzatuta, asko dira hura bisitatzera joaten direnak. "Behin baino gehiagotan entzun izan dugu Euskal Herriko eraikin erromaniko ederrenetarikoa dela".

Beneditarrek santutegia uzten dutenean eraikinarekin zer gertatuko den ez dakite oraindik, baina baikor da Plazaola. "Ondare erromanikoa lantzen duen Erdi Aroko Araba izeneko talde bat badago. Arte erromanikoaren edertasuna zein ezaugarriak ezagutarazteko lan handia ari da egiten". Ibilbidea amaituta, beneditarrek beren egitekoa bete dutela uste du azkoitiarrak, eta santutegiaren gaineko zaintza nork edo nork hartuko duen fedea du; izan ere, hori horrela izanda, azken urteetan itzaltzen joan zaion bizitza berreskuratuko du mende erdiz estalpe izan duen etxeak. ■■■



Estibalizko Santutegia.

**10 URTE ZITUELA
LAZKAOKO
SANTUTEGIRA JOAN,
ETA HAN FRAIDE MUTIL
EGIN ZEN PLAZAOLA**

**"AZKEN URTEETAN
SANTUTEGIRA EZ DA
JENDE BERRIA SARTU,
ETA ETORRI DENAK
EZ DU IRAUN"**



Hitzekin, Korrikari

Apirilaren 8an, ostirala, iritsiko da 22. Korrika Azkoitira, 14:07 inguruan. Aurten ere herriko talde nahiz eragile ugari hartu dituzte euskararen aldeko herriko kilometroen zatiak. Azken urteetan Korrikak Azkoitian utzitako zenbait irudirekin osatu du Maxixatzenek Klik! argazki erreportaje hau.

Testua: **Andoni Elduaen**. Argazkiak: **Maxixatzen, AEK, Javier Beristain eta Arnaitz Rubio**.

AURTENGOA, 22. KORRIKA

Aurten 22. aldiz antolatu du AEK euskalategi elkarteak Korrika. Euskaren alde Euskal Herrian lasterka egiten den egitasmo erraldoia da Korrika. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskalategien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea da egitasmoaren helburua. 1980. urtean egin zuten aurrenekoz Korrika, eta 42 urteren ondoren, aldarrikapenak bizirik jarraitzen du.



AEK EUSKALTEGIEI LANA

Tokian tokiko AEK-ko euskalategiekin lan eskerga handia egiten dute Korrikaren alde. Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako Korrika antolatzeaz Azkoitiko AEK-ko kideak arduratu ohi dira. Hilabeteak igarotzen dituzte lanean, Korrika beren ardurapeko herrietatik behar bezala igaro dadin. Era berean, Korrika Kulturalako ekintzak ere antolatzen dituzte, Korrikarako motorrak berotzen hasteko, baita batzarrak egin ere. Irudian, Azkoitiko AEKren lekukoa eman zuten bi herritar, 2011n ospatu zen 17. Korrikan.



HERRI ERAGILEAK KORRIKAN

Norbanakoen moduan, herriko talde eta eragile ugari egiten dute bat Korrikarekin. Kultur, kirol eta hezkuntza eragiletako kideek egin ohi dute lekukoarekin lasterka; euskararekiko konpromisoa erakusteko unea izan ohi da azkoitiarrentzat Korrika. Irudian, Matadeiko kideak 2013an egin zen 18. Korrikan.



GAUEZ ZEIN EGUNEZ

Euskararen alde egiteko ez dago garai txarririk. Izan gaueko ordurik txikienetan edo izan eguneko lanordurik txarrean, azkoitiarrek beti hartzen dute tarte Korrikari babeserazteko. Irudian, Umore Ona elkartereko kideak 2015ean egin zen Korrikaren 19. edizioan.



KORRIKA TXIKIA

Korrika herrira iritsi baino lehen, Korrika Batzordeak eta herriko ikastetxeek Korrika Txikia egin ohi dute herriko kaleetan. Floreaga Ikastetxeko, Xabier Munibe Ikastolako eta Bizilore Eskola Aktiboko ikasleek lekukoa eraman ohi dute herriko plazaraino, eta hara iristean, eskuz esku txandakatutako ezkutuko mezua irakurtzen dute. 2017. urtean egindako Korrika Txikia, Plazaberrin.



JENDETZA ATZETIK

Korrikaren egunean euskararen aldeko olatu erraldoi batek hartzen ditu herriko kaleak. Olatuaren kolorea desberdina izan ohi da ediziotik ediziora; izan ere, Korrikaren petoaren itxura ere aldatu egiten dute urtero. 2019an egindako 21. Korrikan, esaterako, morez jantzitako marea osatu zuten azkoitiarrek. Irudian, Anaitasuna futbol taldeko bi jokalariek lekukoarekin urte hartan.

BADATOR KORRIKA!

Errepide bazterrean zain izan ohi dira lekukoa eramane behar duten herritarrek, Korrikara batzeko asmoa dutenak edota Korrikari babesa adierazteko txalo egitera joaten direnak. Norberari dagokion kilometrora hurbildu, ordulariari dozena bat aldiz begiratu, eta ondokoari Korrika ordurako iritsiko al den galdetu ondoren, lekukoa eskuan hartzeko garaia iritsi ohi zaie. Irudian, San Jose egoitzako kideak, 2019ko Korrikan. Aurten ere antzeko emozioak biziko dituzte herritarrek. Presta zaitezte, badator-eta Korrika! ■■■



Ni, eta ondoren? Ni



SARA RODRIGUEZ

Nire arazoak nireak dira. Nahiko lan dut nire bizitza aurrera ateratzen. Egunerokoak ito egiten nau, eta horrek ez dit uzten albokoari begiratzen. Lana, ikasketak, egoera pertsonalak... errutina. Horrekin guztiarekin, nahiko lan dut ondo egoten.

Jendeak ez du horrelakorik esaten, baina modu horretakoa dugu bizi garen gizartea. Aldiz, "pertsona onegia zara", "ez sartu horretan, ez da zure kontua" eta "zuk zure buruarekin pentsatu behar duzu" gisako esanak askotan entzun ohi ditugu.

Azken urteetan, auto-zaintzaren eta ongizate pertsonalaren inguruko mezuak guztiz popularizatu dira. Norberak bere burua zaindu eta maitatu behar duen lelopean, harremanak indartzeko eta borrokarako beharrezkoa den ardura afektiboa alboratu egin dugu jada.

Orain, pertsonen arteko harremanak sare sozialetan eraikitzen dira, Tinderretik ligatzen da eta norbaitentzat pertsona garrantzitsua izan arren, bat-batean *bomba de humo* bat egin eta desagertzea zilegi da. Albokoa gaizki dagoela ikusi eta entzungorrazarena egitea, berriz, ohikoena da. Besteen arazoak besteenak dira; nik ditudanak, nireak.

Horrekin guztiarekin zerikusi gutxi du niretzat norberak bere burua zaintzeak eta bakoitzak bere burua maitatzeak. Bizitza ezintzen digun sistema kapitalista honetan, indibidualismoa sustatzea baino zer dago hoberik? Modu horretan, ezinegona nagusi duen gizarteak bere buruan zentratzen pasatu dezake libre duen denbora apur hori, besteekin pentsatu eta arduratu gabe. Gainera, boteredunek etekin ekonomikoak betikotu, eta aldi berean, langileriaren sumisioa eta etsaitasuna lortu ditzakete. Ba ote dago negozio borobilagorik?

Orain, hilabetearen bukaerara ezin iritsita baldin bazaude, familia batentzako jana lortzea zure ardura baldin bada, eta horrek estresatu egin bazaitu eta mentalki kalte larriak eragiten badizkizu, lasai egon. Auto-zaintza eta kudeaketa dira zure bidea. Mindfulness ikastaro batera edo bakartze espiritual batera joan zaitezke, eta horien prezioa ordaindu ezin baduzu ere, sinets ezazu; merezi du.

Eta horrela, laguntasuna eta elkartasuna alboratu egiten ditugu. Zure arazoak nireak ere badirela ahazten dugu, gizartearen %99a beste %1aren antzezlanaren txontxongilo izatera kondenatuz. ■■■

**HARREMANAK
INDARTZEKO
BEHARREZKOA DEN
ARDURA AFEKTIBOA
ALBORATU DUGU**

WEBGUNEAREKIN LAGUNTZEA NAHI?



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Gurpila zoratzen



AITOR ARRUTI

Ume askok ez daukate astirik oinetakoan lokarriak lotzeko orain. Lokarriak lotuta janzten eta eranzten dituzte oinetakoak, behartu egiten dituzte, eskurik erabili gabe, lokarriak askatzeke, oinetan zuzenean sartuz, indarka hanka sartzen, harik eta apurtu egiten dituzten arte. Horrelakoak ikusita, esan dezakegu itxialdi pandemikoan etxean sartuta egoteak ez zigula balio izan lasai bizitzearan onurak gure haurrei erakusteko; baldinbaitere, helduok horretaz zenbat ote dakigun galdetzen hasi beharko genuke aurrena. Kontuak kontu, aspaldi luzean umeek oinetakoak bezalatsu erabili dugu euskaldunok lehenengo komunikatzeko tresna omen dugun euskara ere. Presaren gurpilean arrapaladan sartuta goazela, arreta handirik gabe darabilgu gure hizkuntza, eta konturatzen garenerako zabartu egiten zaigu mingainean, baldartu ordenagailuan, ezindu mugikorrean, halako batean ezertarako balio ez digun arte.

Duela hilabete inguru, etxepeko erantzungailuan gure etxera deitu zuen norbaitek. Egiten ari nintzenari utzi eta zein zen galdetzeraz joan nintzenean, gaztelaniaz erantzun zidan gizonezko ahots batek, eta tonu neutroan eskaera egin: "*Revista del ayuntamiento. ¿Me abre? Gracias*". Dena jarraian. Eta, iruditzen zait niri,

soziolinguistikaz nik baino puska bat gehiago dakien norbaitek erabaki baldin badu udalak argitaratzen duen *Kontzejupetik* euskaraz eta espainolez erdibana plazaratu behar dela, banatu ere ez al litzateke elebitan egin beharko? Hori gutxienez bai, beharko ba, bi eletan argitaratzea erabaki duen norbait horren azalean sartzen ahaleginduta, oraindik ere gu ibili behar iparrorratzik gabe dabiltzanak ulertzeko ahaleginean.

Baina ez du merezi erretxinduta bizitzea, bai zera, alde ederra lagunarteko laineran elkar zirikatuz aritzea. Eta, kontuak zer diren, akordatu naiz esaten duguna nola esaten dugun nahi baino gehiagotan ez garela konturatzen, berriketa txinpartatsuan ari garenean, batzuetan mugikorrari begira, besteetan mintzakideari tamainan kasu eginez. Orain dela gutxi, lau azkoitiar euskaldun entzun nituen, hitz eta pitz, eleketa alaietan, terrazako eguzkipean. Gure telebista nazionalako *Herri txiki, infernu handi* saioak Azkoitiari eskainitako atala komentatzen ari ziren, espainol batu klasikoan. Eta gurpila gero eta zoroago doa, eta auskalo, halako batean azpian harrapatuko gaitu argi ibili ezean, eta orduan irlandarrak bezala geratuko gara, tabernei izena jartzeko soilik balio duen hizkuntza batekin. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Haurren esplotazioa
Izena. Onditz Alberdi Gogortza
Doinua: *Ez nau izutzen negu hurbilak III*

Zorigaitzeko hainbat pertsona

ezerezaren aurrean
besteen gosez bizi ohi dira
kale izkina batean
guk haiekiko enpatiarik
ez daramagu soinean
ta horregatik ibiltzen gara
ez dugunaren eskean
gero tristura sentitzen dugu
nonbait ezetz entzutean
dugunarekin kexatzen gara
besteek ez dutenean.

Sei urterekin lanean gogor

dabilta lurra zulatzen
baloia josi, egurra bildu
nola zama garraiatzen
baina ikusi artean ez da
inor horretaz ohartzen
eta eskua nola luzatu
beti ez dugu asmatzen
gurean berriz salerosketak
ez dira nekez gertatzen
baina guretzat opari dena
besteentzat tortura zen.

DOAN EZ DA DEBALDE



Euskararen plaza gara, herriaren irudia
eta komunitatearen ahotsa
ELKARREN BEHARRA DUGU

EGIN BAZKIDE

bazkide@ukt.eus 943-81 38 41



1 ARNASTU

Garbitu airea, zure etxeko partikulak, alergenak adibidez, kenduz. **Dyson etxea, Milar Larramendin bakarrik.**



2 XURGATU

Ke-erazgailu desberdinak ditugu: isilak, eraginkorrak eta garbiak. **Aukeratu zurea!**



3 BERRITU

Eman sukaldeari itxura berria, armairuak eta kaxoiak bakarrik aldatuz. **Obra txikia, aldaketa handia!**



Julio Urkixo, 16 bis • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es